



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/03

Bizkaiko herritarrek erreklamazino bi baino ez ebezan aurkeztu 2017an Gardentasun arloko Erreklamazinoen Batzordearen aurrean

Gardentasun arloko Erreklamazinoen Batzordeak gaur goizean adierazo dauenez, 2017an erreklamazino biren ganeko ebazpenak baino ez ebazan emon behar izan. Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurreko agerraldiak Podemos Bizkaia taldeak egindako eskariari erantzuten deutso, agerraldia egin dabenak eurak eskatuta be joan diran arren.

Batzordea 2016ko garagarrilean eratu zan, Gardentasunaren ganeko Foru Arauagaz bat etorrita, eta bere egiteko nagusia, jente aurreko informazinora sartzeko eskubidea gauzatzeko orduan egon daitekezan berezko edo beren beregiko ezezkoen aurrean herritarrek aurkeztu daikiezan erreklamazinoen ganean ebaztea da, eta baita gardentasunaren arloko arautegia ez beteteagaitik herritarrek aurkeztutako salaketak izapidetzea be. Erakundeak hiru kide ditu, eta ordezeko beste hiru dagoz.

Lehenengo esku hartzean, eratu zanetik aurrera eroan dauen jardueraren gaineko informazinoa eskatzeaz aparte, Podemos Bizkaia taldeko ordezkaria kritiko agertu da, urteko memoria emoteko orduan epeak ez diralako bete. Adierazo dauenez, ez da aurkeztu bere taldeak eskatu dauen arte. Holan, María Barrena Erreklamazinoen Batzordeko presidenteak adierazo dauenez, batzorde horren egitekoa erabat teknikoa da, eta aitaturako memoria urtarrilean onetsi zan. Taldeei emondako txostenak adierazoten dauenez, 2016an ez zan erreklamazinoarik jaso, eta 2017an bi ebatzi ziran.

Horreetako lehenengoa, memorian zehazten danez, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, jente aurreko informazinoa eskuratzeko eskariari administrazioaren isiltasunaren bitartez ezezkoa emoteagaitik aurkeztu zan. Bigarrena, barriz, Lurraldeko Udal baten aurrean aurkeztutako jente aurreko informazinoa eskuratzeko eskariari emondako erantzunaren aurrean aurkeztu zan.

Gainera, Barrenak azaldu dauenez, Batzordeko organuak bestelako egitekoak be izan ditu: arautegiaren aldaketeagaz erlazioautako prestakuntza lanak; Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak eta beste sail batzuek planteautako gaien azterketea; eta bilerak Datuen Babeserako Euskal Agentziagaz, lankidetzarako mekanismoak ezarri ahal izateko.

Euren erantzunen txandan, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeetako ordezkariak zalantzan jarri dabe herritarrek benetan ete dakien Batzorde hori existiduten danik eta dituan eskumenak ezagutzen dituen, eta hori izan daitekela erreklamazino kopuru txikiaren errazioetako bat esan dabe. Halanda be, Batzarretako talde guztiek autortu dabe Erreklamazinoen Batzordeko kide guztien beharra; holan, ordezkari sozialistak azpimarratu dauenez, “Foru Aldundiak gardentasunaren alde egiten dauen apustua behar horretan islatzen da”.

LEZAMAKO UDALERRIKO URI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BALIO BARIK GERATU IZANA

Eguneko gai zerrendea Ibone Bengoetxea Herri Administrazioa eta Erakundeen arteko Hartu-emonetarako diputatuaren agerraldiagaz osatu da, EH Bilduk eskatuta, EAeko Justizia Auzitegi Gorenak orain denpora gitxi emon dauen eta Lezamako udalerriko Uri Antolamendurako Plan Orokorra onetsi eban Foru Agindua balio barik itzi dauen epaiaren ganeko informazioa emoteko.

Foru Aldundiak ez dauela errekurtsorik aurkeztu adierazo dau Aldundiko ordezkariak, baina oraindino ez dala epaia gauzatuko, Lezamako Udalak aurkeztu dauen kasazinoko errekurtsua izapidetzea onetsi dalako. Gainera, adierazo dauenez, epaia berresten bada, Foru Aldundiak 1.500 euro ordaindu eta Foru Agindua balio barik dagola adierazo beharko dau. Dana dala, “arau aldetik bermea egongo litzateke, Plan Orokor horren aurreko arau subsidiarioak indarrean egongo litzatekezalako”.

Gaia zelan amaituko dan ikusi arte itzarotea defendidu daben ganerako taldeek ez bezela, EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak Aldundiaren jokabidea epaitu dabe, gehiago egin eikeala esanez.

NOTA DE PRENSA

03/05/18

La ciudadanía de Bizkaia únicamente presentó dos reclamaciones en 2017 ante la Comisión de reclamaciones en materia de transparencia

La Comisión de reclamaciones en materia de transparencia del Territorio ha manifestado esta mañana que durante el año 2017 únicamente resolvió dos reclamaciones. Su comparecencia ante la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia responde a una solicitud de Podemos Bizkaia, si bien los propios comparecientes se han personado también a petición propia.

La Comisión fue constituida en julio de 2016 de acuerdo a la Norma Foral de Transparencia y tiene como principal función resolver las reclamaciones que plantee la ciudadanía contra las denegaciones tácitas o expresas del ejercicio del derecho de acceso a la información pública, así como tramitar las denuncias de la ciudadanía por incumplimientos de la normativa en materia de transparencia. Su órgano se cuenta formado por tres titulares y tres suplentes.

En su primera intervención, además de solicitar información sobre la actividad realizada desde su constitución, la representante de Podemos Bizkaia se ha mostrado crítica en relación al incumplimiento de plazos en la entrega de la memoria anual. Según ha aseverado, ésta no ha sido entregada hasta que su grupo la solicitó. En este sentido, la presidenta de la Comisión de reclamaciones, María Barrena, ha asegurado que su función es puramente técnica y que dicha memoria fue aprobada en enero. De acuerdo al informe entregado a los grupos, en 2016 no se recibió ninguna reclamación, a diferencia de 2017 en la que se resolvieron dos.

La primera de ellas, según detalla la memoria, fue a causa de la desestimación, por un silencio administrativo, de una solicitud de acceso a la información pública formulada ante la Diputación Foral de Bizkaia. La segunda, por su parte, se interpuso frente a la contestación de una solicitud de acceso a información pública presentada ante un Ayuntamiento del Territorio.

Asimismo, según ha explicado Barrena, el órgano de la Comisión ha realizado labores de formación debido al cambio normativo; análisis y estudio de cuestiones planteadas por la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia y de otros departamentos; y reuniones con la Agencia Vasca de Protección de Datos con el fin de establecer mecanismos de colaboración.

En el turno de réplica las representantes de Podemos Bizkaia y EH Bildu ha puesto en duda si la ciudadanía conoce realmente la existencia de esta Comisión y las competencias que tiene, siendo esto una posible consecuencia del bajo número de reclamaciones. Aun así todos los grupos junteros han reconocido la labor de los integrantes de la Comisión de reclamaciones; a este respecto el representante socialista ha asegurado que “la apuesta de la Diputación Foral por la transparencia se ve reflejada en su trabajo”.

ANULACIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LEZAMA

El orden del día se ha completado con la comparecencia de la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, a petición del grupo EH Bildu, para dar cuenta de las medidas que llevará a cabo el ente foral en relación con la sentencia recientemente emitida por Tribunal Superior de Justicia de la CAV que anula la Orden Foral por la que se aprobó el Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Lezama.

La representante foral ha manifestado que el ente foral no ha interpuesto un recurso pero que aún no se va a proceder a la ejecución de la sentencia al haber sido admitido a trámite un recurso de casación por parte del Ayuntamiento de Lezama. Asimismo ha explicado que en caso de confirmarse la sentencia, la Diputación Foral deberá abonar 1.500 euros y declarar nula la Norma Foral. No obstante ha asegurado que “hay garantía normativa porque estarían en vigor las normas subsidiarias de antes de ese Plan General”.

A diferencia del resto de grupos que han optado por esperar a ver cómo finaliza esta cuestión, EH Bildu y Podemos Bizkaia han juzgado la postura de la Diputación al respecto aseverando que se podría haber hecho más.